

2021

IKASTAROA



**Sexu-heziketa:
kalitatezko harremanen alde**



**GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD**

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

IKASTAROA:

Sexu-heziketa: kalitatezko harremanen alde

Non: Bilbon, GEBren egoitza. Uriortu kalea, 11-behea

Noiz: 2021eko urtarrilaren 14an, 21ean eta 28an

Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara

Hizkuntza: gaztelera

Leku-kopurua: 12 lagun gehienez (6 lagunentzako lekua gelditzen da)

Izena emateko epea: abenduaren 9tik 15era

Izena ematea:

www.gaztebehatokia.euskadi.eus



Sexu-heziketa:
kalitatezko
harremanen alde

Helburu orokorra:

- Helburu nagusia hezitzaileek berauen lan esparruan aritzen diren haur eta gazteen sexualitateari arreta eskeintzea da, sexualitateak pertsonen garapen integralean duen garrantziaz konzientzia hartuz, ulermen eta lantze jarreretatik aritzeko baliabideak jorratuz.

Helburuak:

- Sexologiaren eredu teorikoa kalitatezko sexualitatearen arretarako oinarrizko erreferente gisa ulertu.
- Haur eta gazteen sexualitatea hezi, artatu eta laguntzearen garrantziaz jabetu.
- Sexualitateari arreta eskeintzea garai guztietan garrantzitsua denaz jabetzen lagundu hezitzaileei.
- Sexualitatea lantze jarreretatik jorratzearen garrantzia azpimarratu, modu honetan auto-
ezagutza eta besteen ezagutza areagotzea lortuz.
- Sexualitatea aukeretatik lantzearen garrantzia oinarritzat hartu autoestimua ona eta
bestekiko harreman positiboak sortzeko.
- Esku-hartze programak eta protokoloak sortzeko oinarriak jarri.



Sexu-heziketa:
kalitatezko
harremanen alde

Metodologia:

Teoriko-praktikoa. Ezagutza edukiak lantzeaz gain, hausnarketa eta eztabaida esparruak sortuko dira eta material ezberdinak ezagutzera emango dira. Lana banaka zein taldeka egingo da.

Parte-hartzaileen interes eta beharretara egokitzen joateko, saio guztietan ebaluaketa dinamikak egingo dira.

Ikastaroaren hartzaileak:

Lehentasuna izango dute gazteekin lan egiten dutenek edo lankidetzan dihardutenek (entitateetan, elkarteetan, herri-administrazioetan, enpresetan, ikastetxeetan, boluntariorantz...). Horrez gain, kontuan izango da izen-emateen hurrenkera.

- **Gazteen arloko langileak** (Gazteentzako Informazioa, udalak, aldundiak, gazte elkarteak eta aisialdikoak, eta beste entitate batzuk).
- **Hezitzaileak.**
- **Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako orientatzaileak.**



Sexu-heziketa:
kalitatezko
harremanen alde

Programa:

1. saioa:

- Sexologiari hurbilpena. Giza izate sexuduna, abiapuntuak.
- Sexualitatearekiko jarrerak.
- Sexuen Heziketaren helburuak.

2. saioa:

- Sexualitatearen garapena eta izaera dinamikoa.
- Haur eta gazteen garapen garaietako ezaugarriak.
- Sexualitatearen arretarako ereduak. Lantze ereduak.

3. saioa:

- Haur eta gazteen autoestimua garatzeko eragileak.
- Kalitatezko harremanak sortzeko oinarrizko beharrak.
- Esku-hartzerako proposamenak: esperientziak eta praktika egokiak.
- Gako metodologikoak, baliabide eta materialak.



Sexu-heziketa:
kalitatezko
harremanen alde

Irakaslea:

Maidier García de Vicuña Quintana, Sexologian aditua (InCiSex) eta Psikologian lizentziaduna. EMAIZE Sexologia Zentroa.

Antolatzen duen erakundea:

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA

Gazteria Zuzendaritza

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.

944 031 645 • gaztebehatokia@euskadi.eus



**Sexu-heziketa:
kalitatezko
harremanen alde**